


ARTZAIN ONAREN KATEDRALA
A MAILA**ARTZAIN ONAREN PLAZA Z/G**
ARTZAIN ONAREN PLAZA Z/G ETA URDANETA 12A-12B

Egilea eta data: Manuel Echave, 1887

Deskribapena

Eliza hau Zabalguneko biztanleentzako parrokia eginkizunak betetzeko sortu zuten, Santa Maria parrokiarekiko zuzkidura osagarritzat. Eragin eremuen banaketa alde batera utzita, bi eliza horiek, hiri mailan, elkarrekiko lotura interesgarria ezartzen dute, ikus ardatz bereko mutur gisa, hiriaren alde zaharraren eta berriaren arteko ardatz antolatzaile moduan. Artzain Onaren parrokia katedral izateko joeraz sortu zen jadanik (XIX. mendearen amaiera aldeko beste eliza batzuk bezala), baina 1953an lortu zuen maila hori, eraiki ondoren hirurogei urte baino gehiago igaro ondoren. Udalak lagatako lurretarako 1887an irekitako lehiaketa Manuel Echave arkitektoaren proiektuak irabazi zuen (1872koa da). Lehiaketa horren oinarrietan, besteak beste, eraikinaren ojiba estiloa finkatu zen. Haren proiektuan, arkitektura gotikoarekiko (eta hurbilagokoa zen neogotikoarekiko ere) irtenbide arrotza aurkeztu zen. Arkitektura horrek, oro har, Frantzian zuen eragin handiena. Zehazki, erdiko dorrearen eta arkupearen irtenbidea herrialde germaniarren beste eredu batzuetan oinarritzen da gehiago. Hiru nabe ditu, gurutzadura bat, dagokion transeptuarekin, eta abside moduko erremate bat, girolaren ordez. 1889an eraikitzen hasi eta 1897an bukatu zuten, nahiz eta dorrea Ramon Cortazarrek amaitu zuen 1899an. Jakina, estilo neogotikoak, elizaren berezko eraikuntzan ez ezik, haren arkitekturarekiko bereizizinak diren dekorazio arteetan izan zuen eragina. Echavez gainera, besteak beste, honako hauek lan egin zuten: Jose Vicente Mendia haren laguntzaileak, Agustin Zumalabe maisu arginak, Julio Gargallo bertako artistak (kapitelak, leihateak, orratzak eta aldareak lantzen), Jose Llimona katalanak (Artzain Onaren eta ebanjelarien irudietan) eta Nicolas Mendivek (pulpituaren obran). Leongo katedraleko beirateen zaharberritzaile eta arkitekto Juan Bautista Lazarok zuzendu zuen beirateen gauzatze lana. Beirateak, lehiaketa bidez, Leongo Bolinaga etxeari enkargatu zitzaizkion, Bartzelonako Pujol etxearen partaidetzaz. Absidearen zazpi leihateek apostoluak eta Jesusen bihotzak irudikatzen dituzte. Ondoren, Gurruchaga arkitektoak zenbait zabalkuntza egin zituen atzealdean, 1909an eta 1929an.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Monumentu historiko-artistiko deklaratzeko hasitako espedientearen ondoriozkoa (1980-9-5eko ebazpena, 248. BOEa, 1980-10-15ekoa) eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez). Gainera, Plan Bereziako "Artzain Ona" multzoan sartuta dago.
- * Eragindako ingurunea: deklarazio horietan ezarritakoa.